

noaua

**Uxue Martinen
bizi-kalitatea
hobetzeko kanpaina**

**Urtarrilaren 21ean hasiko
da autoestima eta
ahalduntze tailerra**

**“Hotzak akabatzen”
proban izena emateko epea
zabalik da oraindik**

Juanito Zapirain, Andatzako basozaina

**“Neguan ohikoa da.
Sute garaian gaude orain”**

URDAIRA

Sagardotegia

Gure 25. URTEURRENA da, zatoz gurekin ospatzera!
ASTE BURU HONETAN SAGARDOA DOAN!!!

astelehenetan itxita

Aginaga 943 37 26 91



BAZKIDEEEN TXOKOA



urtarrilaren 22an Zozketatuko dugu:

**AIALDE-BERRI
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

**NOAUAREKIN
TXOTXI!**

noaua! euskararen aterpe

Albiste iruditan

100 kilo kokaina aurkitu dituzte Ucineko edukiontzi batean

Hedabideetan, eguneko albisteetako bat izan zen urtarrilaren 6an, bi egun lehenago Ucin enpresan izandako gertaera; 100 kilo kokaina zituen edukiontzi bat aurkitu baitzuten. Itxuraz, zanpatutako freskagarri potoak baino ez zeuden bertan. Sutara bota eta ezohiko kea botatzen zutela ohartu ostean egin zuten aurkikuntza. Labea aztertzen hasi eta poto hauen barruan kokaina fardelak zeudela ikusi zuten langileek. 100 kilo kokaina guztira, 90 fardeletan banatuta. Itxura denez, edukiontzia Uruguatik iritsi zen Bilbora eta handik ekarri zuten Usurbilgo enpresara. Gertatutakoaren harira, ikerketa zabaldu du Ertzaintzak. Enpresara bideraturiko edukiontzi gehiago aztertzen aritu dira, aipatu enpresara halako bidalketa gehiago egon daitezkeen argitzeko.



Enpresara bideraturiko edukiontzi gehiago aztertzen aritu da Ertzaintza.

Laburrean

Hurbilago San Silvestre lasterketa, iruditan

Ivan Perez argazkilaria abenduaren 31n ospaturiko ekimenean ateratako irudi bilduma ikusi eta jaisteko aukera duzue, ivanperez.es/acceso-clientes helbidean sartuta. Pasahitza eskatuko zaizue; "sansilvestre2015" idatzi.

Eguberrietako irudi ugari 'Argazkitegian'

Urtero moduan, irudi mordoia utzi digute igaro berri diren eguberriek. Bilduma bat osatu dugu eta ikusgai ipini dugu gure web orrialdean, www.noaua.eus helbidean, *Argazkitegia* atalean.

Datozen egunetan, ikastaro ugari KzGunean

Hurrengo asteotarako eskaintza zabala egin du Usurbilgo KzGuneak. Facebook, Twitter, Youtube, Wikipedia... menderatzeko ikastaroak. Informazio gehiago: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldia. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Esker txarreko garaiak

Ezustearen harrapatu gintuen suak. Azaroaren erdialdean, sutea piztu zen Andatzan. Zubietako eremuan, zehatzago esanda. Itzali orduko, berriro pizten zen. Eguberrien atarian, Igeldon eman zen ezbeharrak. Han ere, gerra dezente eman zuten suak. Eta Urtezahar bezperan, Berangon eta Bermeo inguruan (Bizkaian), Andoainen (Leizaran ibarrean) edota Arantzán (Nafarroan).

Informazioaren aro eroena izango da hau. Berehala izango dugu Txokoaldeko baserri batean edota munduko beste puntan emandako ezbeharrak berri.

Informazioaren gaindosi honetan, dena da azken or-

duko, dena da alarma. Goiburu kolpeak itsututa bizi gara.

Ezustearen gainditu eta apaltzen hasten garenean, informazioa biltzen hasi eta ohar-tuko gara alarmak ez lukeela hainbestearainokoa izan behar. Sua beti da arriskutsu, ados. Lehenbailehen erantzutea funtsezkoa dela. Kalte pertsonalak ekiditeko; ahalik eta hektarea gutxien erre daitezten; suhiltzaileek ahalik eta zuhaitz gehien libra ditzaten.

Baina ez naiz horretaz ari. Informazioaren kontestuz baizik. Gertatutakoa azaltzeko beharrezkoa den ariketaz. Al-bisteari tira egiten hasi eta beti egongo da zure tokian ipiniko zaituen norbait. Lezio ederra emango dizunik.

Azkenaldian eman diren suteen inguruan gehiago jakin nahian, Andatzako basozainarengana jo dugu informazio gosez (erdiko orrialdeetan dituzue modu adeitsuan eskaini zizkigun azalpenak). Eta hark esanda jakingo dugu -ikasi baina, gogora ekarri-, negu partean izaten dela sute garaia hemen. Beste urte batzuetan ere, garai honetantxe eman izan direla antzeko ezbeharrak. Hemerrotekak erakutsiko digu ordubete lehenago basozainak esandakoa.

Eta gaiari buruz informazio biltze horretan, noizbait norbait emandako datua etorriko zaigu burura. Herrian badela erreten talde bat. Suteak pizten direnean martxan jartzen den

koadrila. Ba al zenuen horren berri? Haiekin kontaktuan ipini eta ohar-tuko gara gure basoen, gure lurren zaintza lanetan ari direla aspalditik. Eta gu enteratu gabe. Antza, ez gara bakarrak. Erreteneko kide den Iñigo Huegunek telefonoz esandakoa da hauxe: erreten taldean 30 urtez aritu ondoren, hango eta hemengo suteetan lehen lerroan aritu eta gero, erreten taldea utzi eta ez du instituzioen aldetik esker oneko hitz bat bera ere jaso. Kide ohi bati buruz ari zen Huegun.

Garai eroak hauek. Eta esker txarrekoak. Denon hobe beharrez, arriskuan egon diren horien ahalegin isilaz jabetzen ez garen garaioak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

Iker Alduntzin izan da Hurbilagoren Gabonetako Zozketako lehen saritua

Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketa amaieran egin zen Hurbilagoren Gabonetako Zozketaren lehen saritua agertu da; ondoko irudian duzuen herritarra, Iker Alduntzin. Berari egokitu zaio hirugarren saria; sukaldarako tresneria. Opil Goxo saltokian eginiko erosketek eskertu zaio. Ondoko argazkian duzue Alduntzin, Opil Goxoko langilearekin batera.

Gogoan izan bestalde, Hurbilagoren Gabonetako Zozketan beste bi sari zozketatu arren, sariok oraindik jaberik ez dutela. Dakiguna da, Aldamu zapa-ta konponketen dendan banatu direla zenbaki sarituak. Baina



Iker Alduntzin, Opil Goxoko langilearekin.

onuradunak nortzuk diren momentuz, ez dakigu. Zenbaki sarituotako bat duenak, ager dadila bertara:

1.- Mendiko bizikleta: 195.891.

2.- Telebista: 199.069.

3.- Sukaldeko tresneria: 203.803 (Iker Alduntzin herritarri egokitu zaio).

Irudia: Hurbilago Elkartea.

Tipi-Tapa zozketa

Igandeko barazkidun Tipi-Tapan parte hartu zenuenok, adi. Honako hauek izan ziren, pintxo festa amaieran eginiko zozketako zenbaki sarituak:

1-150 euroko erosketa ballea: 6.468.

2-Bi lagunentzako afaria: 3.689.



Irudiotan, abenduko pintxo festako saritua.

Neguko ospakizunei begira

Ia hiru asteko oporraldiaz gozatu ostean, motzagoa izango den bigarren hiruhilekoari ekin diote ikastetxeek. Martxo amaieran baitituzte hurrengo atsedean egunak. Egu-berrietara ospakizun artean joan ziren Udarregi Ikastolako, nahiz Zubieta eta Aginagako eskoletako ikasle eta irakasleak. Eta itzuli berritan, jaialdi gehiago dituzte begi bistan.



Udarregi Ikastolako haurren danborrada urtarrilaren 19an izango da, arratsalde partean Agerialden.

Donostia Eguna

Urtarrilaren 20an egun handia izango dute Gipuzkoako hiriburuan. Ohi denez, Usurbilen aurre hartu eta bezperan, datorren asteartean ospatuko dira urteroko danborradak, ikastetxeetan. 15:45ean hasiko da Udarregiko HH-koen danborrada Agerialden. LH-koena ere, toki berean izango da baina orduerd beranduago.

Santa Ageda

Inauterietan batera egokituko dira aurtengoan, otsailaren 4ko ospakizunak. Baserritar jantziekin, Santa Ageda bezperari loturiko koplak abestuz eta eskutan izango duten makila joz, kantatu eskean irtengo dira ikastetxeetako ikasle eta irakas-

leak. Oraindik deialdi ofizialik ez badago ere, herri eragileren bat edo bestek ere deitu dezake otsailaren 4ko iluntzerako hitzorduren bat. Kaxkoan edo Zubietan esaterako.

Inauteriak

Santa Ageda bezpera, aipatu moduan, inauteri giroan ospatuko da oraingoan. Honenbestez, jaialdi bat bestearan atzetik antolatu beharrean aurkituko dira ikastetxeak. Otsailaren 4ko baserritar jantzia kendu orduko, biharamunean eskainiko dituzten ikuskizunetarako mozorroak jantzi beharko dituzte. Otsailaren 5ean aurretan, ikasleen inauterietako

emanaldiak. Eta ikasleen ostean, herritarren txanda otsailaren 6an. Inauteri Festa handia ospatuko da Usurbilen. Lanbide edo ofizioen inguruan mozorrotzea proposatzen dizuegu hilabete barru. Hasi jantziak prestatzen.

Egutegia

- Urtarrilak 19, asteartea: Donostia Egunaren bezpera. Danborradak ikastetxeetan.
- Otsailak 4, osteguna: Santa Ageda bezpera.
- Otsailak 5, ostirala: Inauteri festak, ikastetxeetan.
- Otsailak 6, larunbata: lanbideen inguruko Inauteri Festa Usurbilen.

DBH-ko gazteak, Motxianeby lehiaketan sarituak

O arsoaldean eta Buruntzaldean egin berri den esketx lehiaketan sarituak suertatu dira, usurbildar gazteek aurkezturiko lanak. Batetik, DBH 1. mailako gazte talde batek sorturiko "Udazkena" izeneko bideoa, Interneteko bozketan irabazle suertatu da. Gaztelekuok sorturiko "Plastifikatuak" izeneko lana berriz, Usurbilgo parte hartzaile onena. "Soka eta txapela horria" izeneko ikus-entzunezkoa ere aurkeztu zuen Gaztelekuak, Motxianeby lehiaketara. Egube-



DBH 1 mailako talde batek nahiz Gaztelekuok eginiko lanak saritu dituzte.

rrietan egin zen sari banaketa. Iruditan dituzue sarituak.

Informazio gehiago: motxianeby.eus

Autoestima eta emozioei buruzko ahalduntze tailerra

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak, autoestimari eta emozioei buruz antolatutako duen ahalduntze tailerren izen emateko epea, azken txanpan da. Ostegunero batuko dira, Bake Epaitegi atzeko lokalean.

Urtarrilaren 18ra arte apuntatu daitezke 16 urtetik gorako emakumeak, parekidetasuna@usurbil.eus helbidera idatzita, edo 943 377 110 telefono zenbakira deituta. Hilaren 21ean abiatu eta martxoaren 17ra arte luzatuko da Pepa Bojo psikologo eta psikoterapeutak bideratutako duen ikastaroa. Saiok, ostegunero izango dira, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean.



Pepa Bojo psikologoak gidatuko du ikastaroa.

Yoga ikastaroa, asteartean Bake Epaitegi atzeko lokalean

Urriari hasi arren, zabalik segitzen du Einean Guraso Eskolak antolaturiko yoga saioetan izen emateko epeak. Saiok asteartean 17:30etan, asteazketan 18:30etan eta ostegunetan, 10:00etan izaten dira, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Izena eman edo argibide gehiago jasotzeko, deitu saiootako bideratzaileari, Katiari (636 71 15 14).

Bizi-kalitate hobea izateko borrokan

“EUSKADIN UXUE MARTIN DA PHELAND-McDERMID IZENEKO GAIXOTASUN ARRAROA DUEN BAKARRA”

Pheland-McDermid agian ez zaizue ezaguna egingo, bai ordea, lerrootako protagonistari eta ingurukoei. Uxue Martin herritarrek duen gaixotasun arraroaren izena baita. Eguberri aurretik, zuek batek baino gehiagok whatsapp bidez jasoko zuen bere gaixotasuna ikertzeko elkartasun ekimen batean parte hartzeko gonbita. Arrakastatsua izan da. Pentsa, 4 egunetan, 3.191 bozka edo sinadura jaso dituzte. Hunkituta eta esker hitzak baino ez ditu, lerrootan elkarrizketatu dugun Uxueren aita Goyok. Bizi duten errealitatea gertuagotik ezagutzeko aukera eskaini digu.

Uxueren sindromeak zer ezaugarri ditu?

Goyo Martin: Pheland-McDermid izena du, 22q13 kromosomaren zati bat falta zaio. 40 gene falta zaizkio. Tartean, bada bat, Shank3 izenekoa, sindrome hau determinatzen duena. Gen honek, informazioa jasotzen duten neuronon zati batzuk erregulatzen ditu. Laburbilduz, neuronon arteko loturek ez dute kontakturik egiten. Horrek eragiten die sindrome hau. Sindrome oso arraroa da. Euskadin, Uxue da sindrome hau duen pertsona bakarra.

Ez duzue besterik ezagutzen?

G. M. Kasu gehiago egon behar dute. Gertatzen dena da, orain arte diagnosis oso konplexua zen, analitika oso zehatza eskatzen zuen definizio horretara heltzeko. Geure kasuan adibidez beldur ginen, sindrome hau hilkorra izan zitekeelako. Egun, gaixotasun arraroak ikertzeko teknologia hobea dago. Azkenean jakin dugu, badela 44 urteko neska bat sindrome hau duena. Amerikarren arabera, beste edonork baino 10-15 urte txikiagoa izango omen du bizi-esperantza. Halere, ez dago frogatua



Gaixotasun hau dutenek ikasketa gaitasuna oso mugatua dute.

GOYO MARTIN

“Neuronen arteko loturek ez dute kontakturik egiten. Horrek eragiten die gaixotasun hau. Sindrome oso arraroa da. Euskadin, Uxue da hau duen pertsona bakarra”

hori hala denik, ezin da zehaztasun handiz halakorik esan, oso haur gutxirekin egin baitira probak. Horregatik, diagnostikatu gabeko kasu gehiago aurkitzea da geure borroka, haur gehiago badirela bai baitakigu. Autismoa diagnostikatu dieten haur asko daude, sindrome hau dutenak.

Uxueren egunerokoan, zertan eragiten dio sindromeak?

G. M. Haur hauek ezaugarri komun batzuk dituzte. Ba-

etik, muskulu bigunak, oso elastikoak. Esku haragitsu eta nahiko handiak izaten dituzte. Hankak baita. Adimen, ezagutza eta psikomotrozitate mailan, muga nahiko handiak dituzte. Uxue halere ez dago hain mugatua. Ikasketa gaitasuna oso mugatua dute, gehienek ezin dute edo hitz egiteko gaitasun txikia dute. Keinuekin komunikatzen dira. Beste kasu batzuetan, barruko organoekin arazoak izaten dituzte edo ezin dira mugitu. Uxuerekin zorte handia izan dugu eta ez du halakorik.

Nolako da bere eguneroko bizi-tza? Zer mugei egin behar die aurre?

G. M. Batez ere komunikazio mailako mugei. Bera komunikatzen da. Zerbait nahi duenean heldu eta eramaten zaitu. Baina ezin du hitz egin, ezin du adierazi. Bere kognizio maila oso baxua denez, ezin dizu gauza askorik esan, ez daki

gauza batzuk egin daitezkeela. Baina ikasten doa pixkanaka. Urte eta erdiko haur baten antzekoa da, adin horretako haur batek dituen mugekin, baina helduago izanda. Mina duenean ez daki esaten. Mina badu, zerorrek sumatu behar duzu zer duen. Berarekin egonda sumatzen duzu. Gainerakoan, oso zoriontsua da.

Nola moldatzen da beste haurrekin?

G. M. Oso ondo. Bere mailan jolasten da. Haurrokin gauza oso txikiak baloratzen ikasi dugu. Edonorentzat txorakeria dena, guretzat alabak trapua aurpegitik kentzea, edota eskailera bat igotzea lortu duela ikustea lorpen handia da.

“Oso zoriontsua da halere”

NOAUA! Zenbat urte ditu Uxuek?

G. M. 6 urte ditu orain. Bera bere mugak ezagutzen hasi da. Horrek ere berari min ematen dio. Jabetzen da, gauzak egin daitezkeela baina berak ezin dituela egin. Baina esandakoa, oso zoriontsua da halere.

Gaixotasun arraroez hitz egiten da. Baina azken urteotan gaixotasun arraro asko eta ezberdinen berri izan dugu. Arraro izateari utzi diote?

G. M. Neure ustez, gaixotasun hauek arraroak izaten segitzen dute. Neure alabak inork ezagutzen ez zuen gaixotasun bat du. Gaixotasun arraroak dira, oso haur gutxik dituztelako. Geroz eta gaixotasun arraro gehiago daudela? Ez da geroz eta gehiago daudela, baizik eta zientzia aurrerapenei esker, geroz eta aukera gehiago daudela, gaitasun handiagoa dagoela diagnosirako.

“Sendatzea utopikoa da, baina ahalik eta bizi kalitate hobereana izatea nahi dugu”

NOAUA! Zuen borroketako bat, alabaren gaixotasuna ezagutzeara eta ezagutzera ematea izango da, ezta?

Goyo Martin. Inork ez zekien ezer. Alabari gaixotasun hau diagnostikatzen diotenean, alabak urte eta erdi edo bi urte zituen. Aspacen genuen. Han esan ziguten zerbait arraroa gertatzen zela, ez zela normala. Alabak jaio eta segituan meningitisa izan zuen. Jaioberritan, 65 egunez ingratsua egon zen. Meningistaren ondorioa izan zitekeela pentsatzen genuen. Medikiak ezetz esan zigun, zerbait gehiago bazela eta interesgarria izango zela azterketa genetiko bat egitea. Bizkaiko laborategi batean ditudan lagun batzuen bidez, azterketa egin zioten. Orduan esan ziguten Uxuek zuen sindromea zein zen.

Gaixotasun horren arrastorik ba al zenuten?

G. M. Ez. Eta Estatuan sindrome hau zuen inor ez zutela ezagutzen esan ziguten, zer zen ere ez zekitelako. Ameriketako elkartearekin harremanetan zirela eta haiekin harremanetan jarriko zigutela. Ameriketako elkartearekin harremanetan jarri ginen. Haiek Frantziako neska batekin jarri ziguten kontaktuan. Berak eman zizkigun gaixotasun honi buruzko lehen datuak. Geure borroka beste norbait ezagutzeara izan zen. Hila-beteetara, Facebook bidez, gaixotasun arraroen estatuko erreferentzia zentroa Burgosen biltzekoa zela jakin genuen eta Uxueren sindromeari buruz jardun behar zutela. Burgosera joan ginen, eta han, sindrome hau zuten beste 8 familiarik topatu ginen. Bildu eta gutxi izan arren, borrokatu beharra zegoela erabaki genuen. Haurrok sendatzea utopikoa da, baina ahalik eta bizi kalitate hobereana izatea nahi dugu. Elkarte bat sortu



Uxue Martinen aitak aditzera eman digunez, “elkarte bat osatu genuen. Orain Fundazio bat da eta 50 lagun gaude bertan izen-emanda”.

genuen, egun Fundazioa da. 50 bat lagun gaude.

Orain proiektu bat duzue esku artean.

G. M. Hazteko hormona bat baliatuta, haurrokin probak egiteko azterketa proiektu bat dago. AEB-tan probak egin dituzte,

animaliekin zenbait hobekuntza lortu dituzte. Horrek ez du esan nahi gizakiekin gauza bera gertatuko denik, baina probatu gabe ezin jakin inoiz. Proba haiek haurrontzako arriskurik ia bat ere ez dutenez, proba hori lortu nahi dugu. Honen arazoa? Dirua. Laborategiak

80.000 euro eskatzen dizkigu, medikaziorako soilik. Horrez gain, medikuen lekualdakete edota materialak, beste 30.000 eurotik gorako kostua dute. Madrilen egingo lirateke probak, beti ere entsegurako parametro idealetan sartzen diren estatuko haurrekin. Berrogeitik gora haur dira guztira, baina 8 edo 10 haurrek bakarrik parte har dezakete entsegu horretan. Hori da geure lehen helburua; entsegu klinikoak bilatzea, ikerketak diruz laguntzea.

Finantziarioa lortzea garrantzitsua izango da horrelakoetan.

G. M. Etorkezunean dirua lortuko bagenu, baliabideak izan ditzakeen fundazioa izango bagina, ikasleak diruz laguntzea nahi genuke, sindrome hau eta oro har, gaixotasun genetikoak ikertzeko. Geure ilusioa da, azterketa hauek diruz lagundu ahal izatea, haur hauei tratamendua eman ahal izatea, tratamendu askoz egokiagoak aurkitzea, haurrok tratatzeko jendea heztea...

Sindrome honi buruz ari gara, baina beste batzuk ere badira. Baina guztiak, arazo genetikoak dira. Gen gabeziak. Batzuei balio dienak beste ere balioko die.

“Herri honetan jende on asko dago”

Egin berri duzuen kanpaina helburuok betetzeko izan da?

Goyo Martin. Uxueren sindromea ikertzeko proiektua finantzatzeko aldera, dirulaguntza jasotzeko lehiari sartzeko egin dugu bozka biltza. Harrigarria izan da astebetean lortu duguna. Urritik bozka biltzen ari ziren bi proiektuen ostean sailkatu gara. Abenduan, astebetean, 3.191 bozka lortu genituen. Milesker denei. Harrigarria eta hunkigarria izan da, bat batean laguntzeko prest agertu den hainbeste jende-

rekin topatzea. Zorte handia dugu herri honetan, jende on askoa baitago. Denek lagundu digute. Usurbildik Estatuko leku askotara zabaldu da kanpaina. Jende askori bide ezberdinetatik heldu zaio. Asko dugu eskertzeko, jendea alabarekin nola inplikatu den ikusita, eskertzeko asko dugu. Orain, diru-laguntza jasoko dugun jakitea falta zaigu.

Kanpainak izan duen arrakasta ikusita, bistan da; jendea gaio-kin sentsibilizatua dago.

G. M. Geroz eta gehiago. Geroz eta haur gehiago ikusten dira. Jendeak ikusgarriago egiten ditu sindromeok. Askok inguruan badute pertsonaren bat arazoren batekin. Asko gara azkenean. Jendea inplikatzeko delako ikusten da.

Informazio gehiago:

22q13.org.es

info@22q13.org.es

Twitter: @PhelanMcDermid

Facebook: Asociacion Phelan McDermid

Gure Pakea Elkartearen urteko batzar nagusia, urtarrilaren 29an

Hilabeteko azken ostiralerako deitu du Gure Pakea Elkarteak, urteroko ohiko batzar nagusia. Deialdi bakarra egin dute; urtarrilaren 29rako, arratsaldeko 16:30etan, Gure Pakea Elkarteak Artzabalen duen egoitzako ekitaldi aretoan. Honatx jorratuko dituzten gaien zerrenda osoa:

- 1- Lehendakariaren agurra.
- 2- Aurreko biltzar nagusiaren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
- 3- 2015eko memoria irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
- 4- Honako hauek irakurtzea eta onartzea, hala badagokie:
 - A- 2015/12/31ko diru sarreraren eta gastuen balantzea.
 - B- 2015/12/31n itxitako diru egoeraren balantzea.
- 5- 2016. urtean egin daitezkeen aktibitate berrien proposamenak.
- 6- Galde-erantzunak.



Kontxi Etxaberentzat izan da Gabonetan zozketatu duten otarra. Tiburtzio Arrutiren eskutik jaso zuen.

Gabonetako zozketa

Kontxi Etxabe herritarra izan da Gure Pakea Elkarteak gabonetan egin duen

otarraren zozketako saritua.

Ondoko irudian duzue, elkarteko kide Tiburtzio Arrutirekin.

Juanita Furundarenak, Patxi Usarralde, Maria Luisa Alargunsorok eta Benantxi Ugartek aginagarren omenaldia jaso dute



Aurreko astekarian Maria Angeles Arrutik berri eman zigun moduan, iaz 80 urte betetako bi aginagar omendu berri dituzte;



Juanita Furundarena eta Patxi Usarralde. Eta haiekin, 90 urtetik gorako beste bi lagun; Maria Luisa Alargunsoro eta Be-



nantxi Ugarte. Ondoko irudiotan dituzue omenduak, opari eta guzti, udal ordezkariekin batera. Zorionak!

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)



TALASOTERAPIA ORIOKO AISIAN...

- Itsas ura modu terapeutikoan erabilia. Bere ezaugarriak, lokatza, algak eta gatzak diren elementuei batua, gaitz ezberdinak saihesteko balio dute. Onurak oso handiak dira, batez ere onura analgesikoak, min orokorra eta gorputzaren zonalde zehatzetako mina murrizteagatik.
- Eguneko sarrerak
- Hilabeteko bonuak
- **HOTELAREKIN:** Asteburuko eta gau bateko eskaintzak (gaua, afaria...), talasoterapia + **MARISKADA**+ gaua ...



Hondartza bidea 1, Orío 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com

“Suteen portzentaia handiena deskuidoa da”

Andatzen, Igeldon... Sute asko eman da azkenaldian. Arrazoi bila, Juanito Zapirain basozainarengana jo dugu eta, lehen galderan, lehen ezustekoa hartu dugu: “Neguan ohikoa da. Sute garaia da orain”.

NOAUA! Azaroan sutea izan zen Andatzen, Zubieta partean. Gabonen atarian, Igeldon. Ez da oso ohikoa ezta?

Juanito Zapirain. Ba neguan ohikoa da. Sute denboraldia da hemen. Espainian, Mediterraneoan edota Galizian udan-udazkenean den bezala, Gipuzkoan eta batez ere itsasertz kantabrikoan negu partean izaten da.

Landareen lehortzearekin dago lotuta sutea. Espainian lehortea lehenago hasten da, bero handia egiten duelako udan eta dena sikatzen delako abuzturako. Hemen urrian hasten da desekazioa edo ihartzea. Eta gurean, suteen intzidentzia fuertea martxoan izaten da. Sute gehienak otsailean-martxoan izaten dira. Garoa, almitza, belarra, orbela, dena egoten da deshidrataziorik handienez eta usteldu gabe oraindik.



1994an hasi zen Andatzen, basozain lanetan.

JUANITO ZAPIRAIN

“Gipuzkoan eta batez ere itsasertz kantabrikoan negu partean izaten da sute garaia”

Eguraldiarekin ere lotuta egongo da lehortze prozesua.

J. Z. Aurtengoa berezia izan da, hori bai. Normalean azaroan eta abenduan euria bota eta bota egin ohi du, eta horrela ezin du suterik egon. Nahiz eta begetazioa lehor egon barrutik, kanpotik bustita dago.

Ez da arraroa orduan Zubieta in-

guruan eta Igeldo inguruan gertatu dena.

J. Z. Ohikoa da. Esan dudanez bezala, sute garaian gaude, baina baldintza jakin batzuk bete behar dira.

Maiz esaten da basoak utziak daudelako ematen direla horrelako sute ikaragarriak. Ez direlako behar bezala zaintzen.

J. Z. Baldintza bat hori da. Basoa landua badago, belardia segatuta, autoktonoa bada eta ondo establezita baldin badago, harek behe-baso gutxiago edukitzen du. Itzal asko izaten du azpian.

Baserrietatik herrirako trantsizio horretan, humanizazioa

gutxiagotzean, suteak kontinuitate gehiago dauka basoaren abandono horretan. Lehengo bi edo hiru hektareatako suteak izan beharrean, orain ehunkako hektareatakoak izan daitezke. Erregaiak kontinuitatea duelako.

Gurean, inguruko baso batzuk trantsizio horretan daude. Ondo estali gabe, ondo tapatu gabeko basoak ditugu. Erregeratzen daude. Eta une horretan, argia sartzen zaenez, belarra eta otea dago eta horrek indar kaloriko handia du. Suteetan, itzaltzea izugarri zailtzen du horrek.

Zubietakoa gune malkartsuan izan zen. Horrek ere zailduko zuen itzaltzea.

J. Z. Lekua harritsu da hura. Humusa dago, lur bihurtu gabeko sustratua dago eta oso lehor zegoen. Sutea, baldintza horietan, mantendu egiten da. Txondar moduan.

Haizeak ere lagunduko zuen.

J. Z. Haizeak txondar horiek bizitu egiten ditu. Oxigenoa behar dute konbustioa egiteko, eta zenbat eta haize gehiago, bizitu egiten dira.

“Garbi dago sua erabiliz sortzen direla suteak”

NOAUA! Igeldokoak ez zuen Usurbilgo lurrik ukitu. Nahita piztu ote zen. Susmo hori zabaldu zen.

Juanito Zapirain. Motibo asko daude sute baten atzean. Garbi dago sua erabiliz sortzen direla suteak. Argindar kableetatik sortu daiteke. Tximistengatik ere piztu daiteke baina horrelakorik oso arraroa da hemen. Kastilla aldean akaso bai.

Hemen kableekin kontaktu eginez maiz piztu izan dira. Adar batek kable bat jo eta sua piztea. Ematen dira horrelakoak. Lesakakoan, antza, pinu batek kable baten kontra eman eta horrela piztu omen zen sua.

Bizkaiko elurteen ondorioz

eman zen polemikarekin, Iberduerok zabaldu egin ditu kable azpiko garbiuneak. Segur-tasun arrazoiengatik.

Suak erretako lurrak birkalifikatu omen daitezke orain.

J. Z. Oso gutxi dira mendiak erretzeko ematen diren suteak. Nekazaritza edo abeltzaintzako interesak? Ez dakit, asko jaitzi dira jarduera horiek.

Niretzat protzente handiena deskuidoa da. Erreketa txikiak egiten dira, eta ondo itzali gabe uzten dira. Plastikoa pilatu eta “hauxe garbitu egin behar dut”.

Bestalde, jende askorentzat bere xarma du suak. Jendeak jolastu egiten du suarekin, le-

hendabiziko zigarroa...

Motibo asko egon daitezke sute baten atzean. Itzalita zegoelakoan, behar bezala itzali gabe utzi eta ospa egin. Eta ezjakintasunean, batzuk sua piztu eta pentsatu ere ez su horrek horrela eboluzionatuko zuenik. “Aiba, baziek!”. Harek zer egingo du? Korrika hasi eta martxa.

Esan bezala, motibo asko daude. Jendeak maiz esaten du “su eman ziotek”. Baina hik ikusi al duk? “Ez, baina seguru zekiagu”. Komentario horiek, tira...

Kontuz ibili behar da.

J. Z. Bai. Arrantzaleak ibiltzen dira Igeldoko paraje horre-

tan, lanpernetan ere bai gutxi batzuk, edo kanaberarekin... Hortik aparte ez dut inor ikusten sua piztu zen tokian. Oso jende gutxi ibiltzen da paraje horretan.

Mutil koxkor batzuk, mendira jolasera-edo joandakoak. Horrelakoren bat behar du izan, sua erabili, ez dakit zertarako, eta ondorengo sutea eragin duena. Latak, bokadilloaren paperak... eta antzekoak ikusten dira han.

Baina ganaduzalea izan dela pentsatzea zaila egiten zait. Ez da horrelako aktibitate profesionalik jartzeko girorik itsas labar horretan. Baten batek lau behor ditu, baina bere itxituren barruan dauzka jasoak.

“Pinudi bat landatu, dirulaguntza kobratu eta hamabost urtera aspertu eta kentzeak ez du zentzurik”

NOAUA! Arrantza zein ehizaren kontrola ere basozainari al dagokio?

Juanito Zapirain. Berez basozain lana da gurea. Arrantza eta ehiza arloak beste talde batek daramatza. Baina denak gabiltza denean. Asteburuetan txandatus ibiltzen gara eta, lehentasunen arabera, batean edo bestean aritzen gara.

Zeintzuk dira basozain baten zereginak?

J. Z. Adibidez, inork ez dezala zuhaitza bota permisorik gabe. Baimena ematen da zuhaitzak helburu bat duelako. Orain arte helburu komertziala izan du, orain helburu ekologikoa du. Ingurugiroari, dibertsitateari, bertakoa izateari... horrelako gauzei erreparatzen zaio orain.

Ez du zentzurik pinudi bat landatu, dirulaguntza kobratu, eta hamabost urte pasa eta gero, “aspertu egin naiz pinuekin eta bota egin behar ditut, ez dutelako ezer balio”. Zuhaitz bakoitzak botatzeko bere edadea dauka.

Beraz, batez ere kontrol lana da zuena.

J. Z. Hori da, jendeak ez dezala egin sudur puntan jartzen



Garai batean, zuhaitzek helburu ekonomiko bat betetzen zuten. “Ingurugiroari, dibertsitateari, bertakoa izateari... Horrelako gauzei erreparatzen zaio orain”.

JUANITO ZAPIAIN

Basozainarena kontrol lana da batez ere. “Hori da, jendeak ez dezala egin sudur puntan jartzen zaiona. Guk jakinduria hori aplikatzen dugu, gure ingenierien eta gure zuzendarien irizpideak jarraituz”

zaiona. Guk jakinduria hori aplikatzen dugu, gure ingenierien eta gure zuzendarien irizpideak jarraituz.

Ehizan eta arrantzan ere, irizpide orokorrak antzekoak izango dira.

J. Z. Ehizan berdin, zainketa lana: astakeriarik egin gabe, furtibismorik gabe, umatzen ari diren garaia kontuan hartuz...

Arrantzan ere antzeko zerbait. Erreka gehienak nahikoa pattal daude kutsadurarengatik. Horretan ere, lehen ohiko zen erreka lejiarekin joan, erreka erre, morrala bete amorrainekin eta etxera bueltatzea. Beste pila bat akatuta utziz. Horrelako astakeriak egiten ziren.

Normatiba aldetik, neurriak, kopuruak, espezieak... beteazte ere bada gure lana.

“Basoa betidanik izan dut gustuko, batez ere zuhaitzak”

NOAUA! Nondik datorkizu basozain izateko joera?

Juanito Zapirain. Baserritarra naiz, eta 13 urte nituenean etxeko zuhaitz inportanteen datuak apuntatzen nituen. Bokazioa edo. Basoa betidanik gustuko izan dut, baina batez ere zuhaitzak.

Bokazio hori bazenuen orduan. Gaztetatik zara basozain?

J. Z. Mekanikoa naiz lanbidez. 9 urtez ibili nintzen Aginagan,

Martin Mujika-n, baserritar tresnak konpontzen eta saltzen. Baina blokeatuta nengoen. “Zulo honetan sartuta jubilatuta behar al dut?”, kezka horrekin hasi nintzen.

29 urterekin beste zerbaiten bila hasi nintzen. Guarda izateko oposizioak atera zirela esan zidan baten batek, aurkeztu egin nintzen oposioetara baina ez nuen plazarik atera. Gertu geratu nintzen, ordea. Handik pixka batera lan

berezi baterako deitu zidaten Diputaziotik, Gipuzkoan erreka zaintzeko sei hilabeteko lan bat eskaini ziguten zortzi-ri. Lan fijo bat utzi nuen, eta horri heldu nion. Ia erotuta ote nengoen esan zidaten etxean, baina hura zen nire aukera eta hortan sartu nintzen.

Damurik ez duzu.

J. Z. Hiru urte eman nituen erreka zaintzen eta ordezko beza-lan beste lau urte.

Gero Elgoibar, Eibar, Mendarota eta Soraluzeko basozain gisa aritu nintzen bolada batez. Ondoren, karrerako funtzionario plaza atera nuen eta zeuden postuen artean hauxe egokitu zitzaidan. Horrela hasi nintzen Andatzen basozain.

21 urte egin dituzu Andatzen. Ondo ezagutuko duzu ingurua, ezta?

J. Z. Bai, dudarik gabe. Baita bertakoak ere.

Suteei aurre egiteko, “Foru Aldundiak hamabost erreten talde ditu osatuak”

NOAUA! Suteei aurre egiteko garaian, erreten talde bat dago Usurbilen. Bolondresak osatua da, ezta?

Juanito Zapirain. Ia denak baserritarrak dira, edo ingurune horretan mugitzen direnak. Igartzazabalgo Santos adibidez, orain kaderatik gaizki dago eta utzia dauka. San Estebango Zubeldia biberista egon zen bere garaian, Ferndorena aita- semeak ibili ziren... Orain Iñigo Huegun dago bolondres horien buru.

Usurbilgoaz aparte, badira erreten talde gehiago? Zer nolako baldintzak bete behar dira erreten taldeko kide izateko?



Orain urtebete piztu zen Izpirako sua. Sastrakak erretzeko piztu omen zuten sua eta haizearekin nahi baino gehiago zabaldu ziren suaren garrak.

J. Z. Diputazioak hamabost talde ditu. Erreteneko kide izateko baldintza inportantea disonibilitatea izaten da. Autonomo edo baserritar

behar du izan, ez errelebotan lanean aritzen den bat. Libre antzean ibiliko den bat, deitzen zaionean “dena utzi eta banoa” esateko moduan den

bat.

Deitzen zaienean ez dira beti denak etortzen, baina saiatzen dira orokorrean deitzen zaienean etortzen.

Suteak ematen direnean, zuentzat funtsezkoak izango dira erreten talde hauek, ezta?

J. Z. Bai, horrela egin da lan orain arte eta horrela funtzionatzen du.

Baten bat jubilatzen denean edo uzten duenean, erreteneko buru izaten da normalean kide berriak proposatzen dituen. Azterketa bat egiten zaie eta ikastaroko modukoa ematen diegu, materialaz hornitu...

Iñigo Huegun, Usurbilgo erreten taldeko kidea: “Sua itzali arte bertan egon behar da”

Hamasei urterekin hasi zen Andatzen, zainketa lanak egiten. Erreten taldean sartu zen gero, eta urte asko daramatza bertan laguntzen. Sutea pizten denean, erreten taldea jartzen da martxan. Erreten taldea definitzeko eskatu diogu Iñigo Hueguni, eta azalpen hau eman digu: “bolondres talde bat da, baina kideak izendatutakoak dira. Partaide bakoitzak prestutasuna behar du izan. Non eta lanean ez badago, edozein garaian sutera joan ahal izateko prestutasuna”.

“Nonahi pizten ziren lehen”

Ordainsari txiki bat jasotzen dute hilabete amaieran. Eta aldi behin, “birziklatzeko ikastaroak egiten ditugu. Mediki azterketa batzuk ere egiten dizkigu Diputazioak, eta arropa ematen digute”.

Hiru sute piztu dira oso denbora gutxian “eta alarma piztu da”. Iñigo Huegunek ondo



Azaroaren hasierakoa da argazkia. Andatzen, Zubieta partean piztu zen sua ez zen berehalakoan itzali.

islatu du egunotako kezka. “Baina lehen sute asko zeuden eta nonahi pizten ziren”. Abeltzaintza zein nekazaritza zela, jarduera handia zegoen. Maiz deskontrolatu egiten zen jarduera hori eta suteak nonahi ematen ziren. Horrelakotan, “basozaina eta inguruko erretena hurbiltzen zen sutera. Orain pilo bat murriztu dira. Gaurko egunean baserri bizimodua gutxitu egin da eta

sua ere asko jaitsi dira”.

Sute baten aurrean, mendia ezagutzea inportantea da, eta mendian ibiltzen ohituta egotea ere bai. Baldintza horiek oso inportanteak dira erreten taldeko kide bihurtzeko garaian.

“Dena utzi eta banoa”

Murrizketak dena iritsi dira eta baita horrelako zerbitzuetara ere. Baina erreten talde-

ko kideek hor jarraitzen dute, zaintza lanetan eta suari aurre egiten.

Honek, noski, konpromiso maila handia eskatzen du. “Dena utzi eta banoa”. Sua arriskutsu izateaz aparte, “itzali arte bertan egon behar da”. Horrek ere denbora eta prestutasuna eskatzen die erreten taldeko kideei. Eta konplizitatea, suaren aurrean zein zaintza lanetan. “Gure artean bada halako sentimendu bat”.

Erreten taldeko partaideak

Usurbilgo erreten taldea zazpi lagunek osatzen dute une honetan: Jon Portu, Mikel Artola, Garikoitz Urdanpilleta, Mikel Arrillaga, Aitor Unanue eta Iñigo Huegunek.

Joxe Miguel Amondarain urte askotan egon da baina ezintasun batengatik utzi egin behar izan du.

“Askatasun gabetuaren ametsak aurpegi asko ditu”


Ametzen liburua izeneko proiektuan “426 askatasun gabetuen testigantzak, kartzelako eta erbesteko argazkiak, gutunak, bertsoak, margoak edota 47 euskal artisten artelanak” batu dituzte. Besteak beste, espetxea edo erbestea ezagutu dutenen usurbildarren ekarpenez osatua dago, As-tero argitaletxearen ia mila orrialdeko lan mardula. Urtarrilaren 21ean Sutegin aurkeztuko dute. Proiektu honen inguruko zenbait xehetasun aurreratu dizkigu lerrootan, liburuko koordinatzaile Jokin Urainek.

NOAUA! Zein da proiektu honen abiapuntua?

Jokin Urain: Proiektu honen abiapuntuan galdera simple bezain konplikatu bat dago: “Presoek zer dute amets?”. Euskal preso politikoaren edo askatasun gabetuen, euren bizitzan espetxea edo erbestea ezagutu dutenen ametsak ezagutu nahi genituen, isiltasunean eta itzalpean daudenen ahotsak eta irudiak argitaratu atera.

Kalean da liburua. Donostian aurkeztu zenutenetik zer harrera izan du?

